AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4475

4809/2026 EBAZPENA, irailaren 22koa, Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez errebokatzen baita, berak hala eskatuta, Arabako Bailarak II erakundeko Lehen Mailako Arretako Unitateko buruaren eginkizunen esleipena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Erakunde Sanitario Integratuan.

Irailaren 23ko 1817/2024 Ebazpenaren bidez, Raúl Peña Bárcena jaunari Arabako Bailarak II erakundeko Lehen Mailako Arretako Unitateko buruaren eginkizunak esleitu zitzaizkion Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Erakunde Sanitario Integratuan.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Gerentzia honek,

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Errebokatzea Raúl Peña Bárcena jaunari Arabako Bailarak II erakundeko Lehen Mailako Arretako Unitateko buruaren eginkizunen esleipena, berak hala eskatuta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Erakunde Sanitario Integratuan, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2026ko irailaren 30eko lanaldia amaitzean izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Arabako Erakunde Sanitario Integratuari ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko irailaren 22a.

Arabako ESIko zuzendari-gerentea.

E.B. (3031/2026 Ebazpena, ekainaren 2koa).

Arabako ESIko zuzendari medikoa,
ITZIAR NEVE LETE.